



Gure ideia hasieratik genuen aukeratua, nahiz eta eztabaida batzuk izan. Denei iruditu zitzaigun ideia berritzaile eta iraultzailea, izan ere, kontsoladoreak gaur egun oraindik tabu izaten jarraitzen dute. Hasieran kontsoladore arruntak egingo genituen, baina proiektua aurrera joan ahala berrikuntzak sartu genituen eta horrela sortu zen gure produktuaren ideia: aplikazioa batekin konektatuak dauden kontsoladoreak.

Gure helburua produktu iraultzaile bat egiteaz gain, dagoeneko martxan dauden kontsoladoreak hobetzea da. Hobekuntza bat da, izan ere, aplikazio bati konektatua dago eta musikaren erritmoan bibratzen du eta hori ez dago gaur egun merkatuan. Horrela, gure bezeroek autoplazerra bilatzeko modu berri eta desberdin bat izango dute eta horrek jendeak produktua erostea eragingo du. Azkenik, gure proiektuaren izena "Ritmo" da.

